



Miren González - Mainer Orueta

Aixerrota BHI, 14-15

# Aurkibidea

Joan Mari Irigoien .....	2
Sarrera .....	3
<b><i>Odolean neraman</i></b>	
• Kokapena .....	4
• Gaia.....	4
• Argumentua .....	4
• Gertakizun nagusiak .....	5
• Egituraketa .....	7
• Pertsonaiak .....	7
• Baliabideak .....	10
• Iritzia .....	11
Bibliografia-Webgrafia .....	12

# Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoien 1948an Altzan (Gipuzkoa) jaiotako euskal idazlea da.

Ingeniaritza ikasketak egin zituen baina ez zuen inoz horretan lan egin, baizik eta idazle bihurtu zen. Olerkigintza eta nobelagintza generoak landu ditu. Edonola ere, bi genero horietatik nobelagintza da ospe handiena eman diona. Bere eleberrietan kezka azaltzen ditu eta aldi berean euskal gizartearen eta historiaren erretratuak egiten.



Gaztea zenean, futboleko jolasten zuen Sanse taldean. Gai hori bere nobela batzuk idazteko oinarritzat erabili du.

Horrez gain, irakaskuntzan eta itzulpengintzan aritu da, *Egin* egunkariaren zuzendari izan da eta ETBrako zenbait lan egin ditu.

24 urte eman ditu idazle profesional moduan Elkar argitaletxean. 2013an jubilatuta behar izan zuen osasun arazoengatik. Hala ere, poesia lantzen jarraitzen du.

Bere bizitzan zehar lan handia egin du eta zenbait sari lortu ditu. Haren nobelagintzako lan ezagunenak *Babilonia* (1989, Euskal saria lortuz) eta *Lur bat haratago* (2000) eleberriak dira, beste asko idatzi baditu ere.

Olerkigintzan, *Hutsetik esperantza* (1975) olerki bilduma kaleratzean, Irun Hiria saria lortu zuen. Bere azken lanetako batzuk *Odolean neraman* (2004, Elkar) eta *Bestea da mundua* (2008, Elkar) dira.

# Sarrera

*Odolean neraman*, Joan Mari Irigoienek idatzitako nobela bat da. 2004an argitaratu zen lehen aldiz eta arrez geroztik 4 edizio plazaratu dira.

Euskal Herrian kokatuta dago istorioa batez ere, Donostian. Protagonista, Eneko Ortega, umetatik futbolerako pasioa izan duen mutil bat da. Zaletasunarekin batera izugarrizko abilezia lortu eta horrek ospea eta dirua ekarriko dizkio, baina arazo larriak ere. Protagonistaz gain, amona Sinforosa, aita, ama, Montse eta Iker dira istorioan zehar garrantzi handiena duten pertsonaiak.

Gaur egungo bizimodua islatzen du, pertsonaiek gurea bezalako bizitza daramatelako. Gure gizartearen kritika egiten du idazleak, futbolaren mundua oinarritzat hartuta. Protagonistaren bizitza kontatzen digu, umea denetik nagusia den arte. Nobela aurrera joan ahala, bizitza erraza ez dela konturatuko da Eneko, eta hainbat oztopo gainditu behar izango ditu bere helburua lortzeko, futbolari famatu bat izatea, hain zuzen. Bere gurasoen arteko egoerak ez dio asko lagunduko, baina beti izango ditu amona Sinforosaren eta beste zenbait pertsonaien laguntza.

Genero narratiboa du eta narratzaile pertsonaia du. Enekok bere bizi esperientziak lehenengo pertsonan kontzen ditu bere iritzia emanaz eta bere iraganean bizitako gorabeherak kritikatu eta baloratu . Horrek arintasuna eta hurbiltasuna ematen dio istorioari eta protagonistaren egoera hobeto ulertzen laguntzen digu. Gainera, zenbait baliabide estilistiko erabiltzen ditu (onomatopeiak, konparazioak, errepikapenak...)

# *Odolean neraman*

## Kokapena

Lehen aipatu bezala, garaiari dagokionez, gaur egungo istorioa da. Gure gizartearen ezaugarriak agertzen dira, besteak beste, teknologia berriaren erabilera, gaur egungo gazteen zaletasun berdinak dituzten pertsonaiak... Liburua 2004an argitaratua izan zen, eta idazleak garai horretako gizartea kritikatu egiten du.

Euskal Herrian gertatzen da batez ere (Donostian). Gero, protagonista Bartzelonara joaten da bizitzera, eta beraz bertan ere kokatzen da istorioa. Euskal gizartearen eta historiaren erretratua egiten du Joan Mari Irigoienek eleberri honetan.

## Gaia

Ospeak eta diruak dakartzaten ondorioak. Gure gizartearen erretratu eta kritika bat da, futbolari baten esperientzia oinarritzat hartuta.

## Argumentua

Eneko txikitatik futbolzale itsua izan da. Ziurrenik, futbolerako sen hura gurasoengandik eta amonarengandik datorkio. Izan ere, futbolzale amorratuak ditu horiek ere.

Auzoko taldean hasi eta berehala fitxatuko du Sportingarekin, Errealarekin, eta aurrerago Barçarekin. Horrek ospea eta dirua ekarriko dizkio, baina arazo larriak ere (emakumeekin, drogekin, lagunekin... ) Arazo horiei aurre egiteko maite dituen pertsonen laguntza eta aholkuak beharko ditu.

## Gertaera nagusiak

1. Enekorri txikitatik futbola asko gustatzen zitzaion. Zaletasunarekin batera izugarrizko abilezia lortu zuen. Aitak taberna bat zuen. Bertan lan asko izaten zuten eta familia osoaren laguntza behar izaten zen.
2. Aita konturatu zenean Eneko futbolari aparta zela, bere alde irauli zituen indar guztiak, etorkizunean futbolari famatu bat izango zela ikusten zuelako.
3. Aita gehiegi edaten hasi eta arazo larriak izan zituen. Psikiatrikoan hilabete batzuetako tratamendua jaso eta azkenean sendatu egin zen.
4. Eneko auzoko futbol taldean jolasten hasi eta, aurrerago, Sporting taldeak fitxatu zuen. Urte batzuen ondoren Sporting utzi eta Errealarekin jokatzeko hasi zenean, bere ametsa bete zela konturatu zen, eta baita bere aita eta amonarena ere.
5. Hori guztia gutxi balitz, Espainiako selekzioko entrenatzailearen deia jaso zuen, beraiekin entrena zedin. Horrela, gazte mailako mundialera joan eta urrezko bota eskuratu zuen, lehiaketako golegilerik onenari zegokiona.
6. Gauzak hobeto zihoazen eta kirol-denda bat ireki zuten Donostian, Enekok lortutako diruarekin.
7. Bi urtez Errealean egon ondoren, Barçak fitxatu zuen eta Eneko Bartzelonara joan zen bizitzera. Bertan berehala lortu zuen arrakasta eta ospea.
8. Egun batean, jarraitzaile batzuen artean Montse izeneko neska ilehori polit bat hurbildu zitzaion autografo bat eskatzera, eta telefonoa ere eman zion. Egun batzuen ondoren Eneko berarekin maitemindu egin zen. Montsek dirua gustuko zuen Eneko baino gehiago, baina Eneko itsututa zegoen eta ez zitzaion axola. Aurrerago ezkondu ziren. Ez zuten asko iraun, eztabaida baten ondorioz dibortziatu egin baitziren.
9. D.-rekin jarri zen bizitzera, Barcako taldekidea eta laguna. Egun batean, Eneko konturatu zen D. homosexuala zela, eta bakarrik bizitzera joateko erabakia hartu zuen.

10. Handik gutxira, komunikabideetako elkarrizketa publiko batean esan zuen emakumeak gau baterako nahi zituela, konpromisorik izan gabe. Geroztik, gauetan neskaren bat eramaten zuen etxera, eta horrela eman zuen denbora luzea, emakumeak erabili eta botatzeko erabiltzen. Horietako emakume bat Adela izeneko prostituta bat izan zen. Enekoren haur bat izan zuen, Jordi izenekoa, eta Enekok diru kantitate bat ordaindu behar izan zion hilero, umearen mantenurako.
11. Enekok deskantsatu beharra zuen. Horregatik Euskal Herrira bueltatu zen bere familiarekin egoteko. Zabaleta doktoreak (mediku psikiatra) asko lagundu zion, eta saio batzuk egin zituen gurasoekin eta baita amonarekin ere, haien arteko arazoak konpontzeko.
12. Denbora behar izan zuen errekuperatzeko, baina lortu zuen. Bi urtez egon zen Errealarekin jolasten, baina 30 urte bete zituenean futbola utzi behar izan zuen.
13. Berriro ere depresio batean sartu eta drogekin hasi zen. Ospitalean, Iker izeneko gizon bat ezagutu eta maitemindu egin ziren. Horrek bizitzeko gogoak piztu zizkion Enekori. Gainera, familiakoek Enekoren homosexualitatea onartu zuten.
14. Handik gutxira, Adela hil eta Enekok eta Ikerrek Jordi etxera eraman zuten haiekin bizitzera.

## Egituraketa

Obra honen egituraketa flash-back modukoa da, hau da, gertaerak ez dira beti orden kronologikoan agertzen. Protagonistak bere bizitza kontatzen du, ume bat denetik nagusitzen den arte. Hala ere, momentu bakoitzean gogora etortzen zaizkion oroitzapenak kontatzen ditu, horregatik ez dago guztiz ordenaturik. Horren adibide bat Enekok esandako esaldi hau:

*“Haiek baino lehentxeagokoa, berriz, beste esperientzia hura nuen...” (141)*

Narratzaileak lehenengo pertsona eta lehenaldia erabiltzen ditu hasieratik bukaera arte. Izan ere, berak bizitako esperientziak kontatzen dizkigu. Kapituluak banatuta dago liburua, bakoitza zenbaki baten bidez adierazita.

## Pertsonaiak

Protagonista Eneko da, baina aipatzekoak ere badira amona Sinforosa, aita, ama, Montserrat eta Iker.

**Eneko Ortega.** Istorioaren protagonista da. Txiki-txikitatik futbolzalea izan zen. Familiatik zetorkion zaletasun hori. Izan ere, futbolzaleitsuak zituen bai gurasoak bai amona. Zaletasunarekin batera izugarritzko abilezia lortu zuen. Auzoko taldean jolasten hasi zen, baina Sportingean, Errealean eta Barçan ere jokatu zuen.

Umetan ia guztia egiten uzten zioten. Horrek kapritxosoa eta oso tematia bihurtu zuen: gauzak muturreraino eramaten zituenean sekulako garrasiak egiten zituen nahi zuena lortzen zuen arte. Aitak askotan esaten zion marikoia zela. Izan ere, arrosa gorria baino atseginoago zuen, bere lehengusinarekin panpinarekin noizbehinka jolasten zuen eta pelutxe bat nahi zuen. Gainera, ohea egitea gustatzen zitzaion, mutilen artean hain ohikoa ez zena. 30 urte inguru zituenean konturatu zen homosexuala zela eta gizonak gustatzen zitzaizkiola.

La Salle ikastetxean hasi zen, baina urte batzuen ondoren aitak institutuan matrikulatu zuen. Inoiz ez zuen estudiatzeko gogorik izan eta ez zen estudioetan behin ere nabarmendu. Hala ere, idazteko abilezia ikaragarria zuen eta noizean behin liburuak ere irakurtzen zituen.

Ile hori bikaina zuen, baina izterzabala eta hankokerra zen. Horregatik ikastetxeko eta herriko lagunek barre egiten zioten. Eta, nola ahatearen ibilera baitzuen, Kua-Kua deitzen zioten. Hala ere, Enekok jenio



bizia zuen eta beharrezkoa ikusten zuenean, merezitakoa ematen zien adarra jotzen ziotenei.

**Amona Sinfrosa.** Enekoren amona. Alarguna zen, baina futbolzaletasuna bere senarrak kutsatu zion. Errealasko gustatzen zitzaion eta Real Madrilen etsai amorratua zen. Haserretzen zenean, bere burua kontrolatzeko Errealaren alineazioa errezitatzen zuen behin eta berriz.

Emakume xelebrea zen, ausarta eta bihotz handikoa. Nortasun handia zuen, eta hitza ongi baino hobeto erabiltzen zuen. Hitz egin behar zuenean ez zen isiltzen, kontuan hartu gabe nor egokitzen zitzaion aurrean. Gainera, irudimen handia zuen. Gauetan, Eneko txikia zenean, ipuinak kontatzen zizkion, eta gehienetan futbolarekin lotutako ipuinak asmatzen zituen. Inozentziaren xarma zuen, gauza bakoitza lehenengo aldiz gertatzera balihoakio bezala bizitzera bultzatzen zuena, antzeko egoeran aurretik beste mila bider bizi izan arren.

Jenio bizia zuen eta eztabaida asko izaten zituen aitarekin. Enekorekin, berriz, oso harreman ona zuen. Askok hitz egiten zuten eta aholku on asko ematen zizkion. Oso momentu onak pasatzen zituzten biak batera. Izan ere, amona zen Eneko ondo ulertzen zuen pertsona bakarra.

**Andoni, aita.** Enekoren aita, hau ere futbolzalea. Errealeko bazkide izan zen urte luzeetan, eta are luzaragoan izango zen baldin eta lanetik bota izan ez balute, aurrerantzean tabernaren negozioari heltzen ziola. Anbiziosoa zen, eta taberna hura lehen geltokitzat zuen, noizbait jatetxe bat irekitzera eramango zuen itxaropenez. Taberna goizeko 9etan irekitzen zuen arren, atsegin zitzaion ordubete lehenago tabernan bakarrik gosaltzea, bi egunkari erosi ondoren. Berak prestatutako kafesnea eta kruasan bat hartzen zituela irakurtzen zituen.

Askok edaten zuen, eta horren eraginez askok hitz egiten zuen. Gainera, behin baino gahiagotan arazo larriak izan zituen alkoholarekin. Izugarritzko memoria zuen: Errealaren alineazio guztiak zekizkien, baita jokalarien biografiak ere. Jenio bizia ere bazuen eta oso tematia zen.

Haurren heziketa emakumeen kontua zela sinetsi egiten zuen. Eneko bakean utz zezan, zaplastekoa ematen zion, ez-entzunarena egiten zuen edo amari edo amonari deitzen zion. Hala ere, Eneko futbol-izar bat izango zela konturatu zenean, bere alde irauli zituen indar guztiak. Izan ere, gaztea zenenan, bere urrezko ametsa eliteko futbolaria izatea zen. Bera ez zen, ordea, erregionaletik pasatu. Ohartu zenean Eneko futbolerako gaitasun aparta zuela, berak bete ezin izan zuen ametsa bere semeak bete zezakeela ikusi zuen.

**Pilar, ama.** Hau ere futbolzalea. Sukaldean lan egiten zuen, baita etxean sekula amaitzen ez diren beste mila kontutxoetan (erosketak, hornidurak, etxearen mantenua...) ere. Bere senarrarekin liskar asko izaten zituen, baina nola gizona zen hain arteko harremanetan agintzen zuena, bera isiltzera mugatzen zen. Eneko ia guztia egiten uzten zion, eta hein handi batean bera izan zen Eneko kapritxoso bihurtu zuena.

**Montserrat.** Neska ilehoria, polit-polita. Merkatari ezagun aberastu berri baten alaba zen. Dirua asko gustatzen zitzaion, eta ezin konta ahala gizon ospetsurekin oheratzen zen. Negozioetarako sena aitagandik zetorkion. Amorante bakoitzari bi ile kentzen zizkion (bata burukoa eta bestea metro bat beheragokoa) eta kristalezko kutxatxo batzuetan biltzen zituen. Gizonak hil ondoren haien ileak prezio onean saltzeko egiten zuen hori, zahartzaroan arazo ekonomikorik ez izateko. Eneko izan zen gizon haietako bat. Ezkondu egin ziren baina berehala dibortziatu egin ziren.

**Iker.** Enekok zentroan ezagutu zuen mutila zen. Berak eskatua joan zen zentrorra, hasieran depresio handi baten ondorioz, baina gero tuberkulosia zuelako. Bakarrik bizi zen eta oso egoera txarrean zegoen. Ez zuen behar adina indarra egoerari aurre egiteko eta horregatik depresio batean sartu zen. Sofa batean eserita zegoela ezagutu zuen Enekok, leiho baten aurrean, begirada edozein puntuan galduta zuela. Iker homosexuala zen, Eneko bezala, eta elkarrekin egoten hasi ziren. Ikerrek umore puntu bat zuen, horregatik Enekoren amonarekin berehala egin zuen konfiantza. Elkarrekin bizitzen hasi ziren eta Enekok Adelarekin izandako semea, Jordi, haiekin bizitzen hasi zen.

## Baliabideak

Eleberri osoa barne-elkarrizketa bat da, protagonistak bere esperientziak kontatzen dituelako, umea denetik nagusia den arte. Horrela bere pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditu. Protagonistak gainerako pertsonaiekin dituen zenbait elkarrizketa ere agertzen dira, eta horietako gehienak Ik forman daude. Elkarrizketa gehienak bere amonarekin izaten ditu, Enekok harreman sendo bat duelako harekin eta aholku asko jasotzen dituelako.

Lexikoa ez da bereziki zaila eta alde horretatik nahiko sinplea da liburua. Idazleak deskribapen asko egiten ditu, pertsonaiak hobeto ezagutzeko eta nolakoak diren imajinatu ahal izateko, ezaugarri fisikoak nahiz izaerarenak azalduz. Narratzaileak lehenaldia eta lehenengo pertsona erabiltzen ditu.

Idazleak behin baino gehiagotan azpimarratzen du euskalduna izatearen sentimendua, eta horrek espainiarrekin sortzen dituen liskarrak:

*“...zeinen gaizki tratatzen gintuzten ikusle batzuek Sanserekin eta Errealarekin hara eta hona ibili nintzen garaian -hiltzileak!, asesinoak! putakumeak!, eta abar-, istiluren bat zegoen bakoitzean batez ere, euskaldun guztiak moralaren eta etikaren estoldetara kondenatzen gintuztela!” (109)*

*“Euskal abertzaletzat nuen neure burua, baina Espainiako selekzioan jokatu beharra nuen.” (193)*

Zenbait baliabide estilistiko agertzen dira, hala nola metaforak eta konparazioak.

### Metaforak

*“...Montse uholde bat zen, esana dut...” (158)*

*“...buruan ez dakit zer haize sartzen zitzaidala, halaxe esan nion bat batean...” (158)*

## Konparazioak

*“...uholde bat balitz bezala, bidean aurkitzen zuen guztia aurretik zeramana...!” (158)*

*“...ezpainak ezpainetan, erlea lorean bezala.” (164)*

## Iritzia

Eleberri honek mezu interesgarri bat du, gogoeta egitera eramaten gaituena. Gure gizartean eta bizimoduan, diruak eta ospeak duten garrantzi handia adierazten du, futbolari famatu baten esperientzian oinarrituta. Protagonistak dirua, ospea eta emakumeak mordoka lortuz zoriontasun osoa lortuko duela uste duen arren, bere bizitza aurrera joan ahala zorionsua ez dela konturatzen da. Bere iraganean egindako akatsak kritikatu egiten ditu, eta bizitzak irakatsi dizkion lezioak azaltzen. Horren adibide da eleberriko esaldi hau:

*“Pelikula hartan pailazo bakarra izan nintzen, eta ez nintzen, pelikula amaitu arte, hartaz jabetu!” (189)*

Azkenean konturatu egiten da berak hain garrantzitsu ikusten zituen baloreen gainetik, beste gauza garrantzitsuago asko daudela bizitzan, benetan maite dituen pertsonekin egotea, adibidez. Bere familiak eta lagunek ez dute Eneko inoiz bertan behera uzten, eta bizitzan aurrera jarraitzera bultzatzen dute.

Pertsonen arteko harremanek garrantzia handia dute eleberrian, eta denbora igaro ahala hauek nola aldatzen diren erakusten du. Enekoren eta aitaren arteko harremanak, gure gizarteko gurasoen eta seme-alaben artean hain ohikoak diren egoerak islatzen ditu: aita oztopo bat bihurtzen da Enekoren bizitzan, bere erabaki propioak hartzeko askatasuna uzten ez diolako. Montserekin duen harremanak, berriz, mundu moderno honetan edertasun fisikoari ematen zaion garrantzia islatzen du, azkenean desengainatzen gaituena.

Pertsona asko identifikatuta sentitu daitezke eleberri hau irakurtzean. Gure artean oso ohikoak diren gurasoen eta seme-alaben arteko arazoak behin eta berriro agertzen dira, baina beti konponbide batera heltzen dira. Beste alde batetik, Enekok oztopo asko gainditu behar ditu bizitzan zehar, baina horiek gainditzeko ahalegina egin behar dugula erakusten digu.

Obra originala eta entretenigarria da, irakurlearen interesa pizten duten zenbait gai lantzen dituelako. Hala ere, nobelaren lehenengo erdia nahiko astuna egiten da, gauzak gehiegi errepikatzen baitira. Eleberri hau 15 urte inguruko gazteei gomendatuko genieke, eta are gehiago futbolerako pasioa duten horiei.

## Bibliografia-Webgrafia

*Odolean neraman*, Joan Mari Irigoien. Elkar.

- <http://euskaljakintza.com/odolean-neraman-joan-mari-irigoien/>
- [http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan\\_Mari\\_Irigoien](http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Mari_Irigoien)
- <http://www.elkarargitaletxea.com>
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/joan-mari-irigoien-aranberri>
- <http://atalak.eus/ikagela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://www.erabili.com/lantresnak/hiztegiak/elhuyar>